


201. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Azpeitiarrak energiaren
sortzaile eta kontsumitzaile**



Telefono interesgarriak

| | |
|--------------------------------|--------------|
| Zentralita | 943 15 72 00 |
| Hirigintza | 943 15 71 91 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 15 71 92 |
| Kultura | 943 15 70 68 |
| Kirolak | 943 15 00 95 |
| Parekidetasuna | 943 15 79 28 |
| Emakumeen Txokoa | 943 15 70 55 |
| Iturritxiki Ludoteka | 943 15 11 79 |
| Txiki-Txoko Ludoteka | 943 15 05 16 |
| Gazte Informazio Bulegoa (GIB) | 943 15 71 60 |
| Eguneko Zentroa | 943 15 74 96 |
| Liburutegia | 943 15 71 95 |
| Udaltzainak | 943 15 13 13 |
| Igerilekua | 943 81 41 21 |
| Kiroldegia | 943 81 30 69 |
| Udal Euskaltegia | 943 81 19 47 |



Ale honetan zer?

| | |
|------------------------|----|
| Elkarrizketa | 3 |
| Lurren erabilera | 6 |
| Proiektua | 8 |
| Bulegoa..... | 12 |
| Dirulaguntza | 13 |
| Eragileak..... | 14 |

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu **Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria **943 15 71 85** (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



“Eskerrak eman nahi dizkiegu proiektuan interesa agertuz proiektua babestu duten herritar guztiei”

Nagore Alkorta eta Hodei Arzak

Azpeitiko alkatea eta Ekindarreko teknikari eta Ekiolako kontseilaria

Pausoz pauso, gero eta gertuago dago Azpeitian herritarrek sortutako energia etxean kontsumituko duten eguna. Nagore Alkorta alkateak gertutik jarraitzen ditu proiektuak egunez egun ematen dituen pausoak eta proiektuan buru-belarri dabil Hodei Arzak Krean taldeko ingeneria. Biak ala biak “gustura eta oso eskertuta” daude proiektuak izan duen erantzunagatik. Denbora luzea daramate proiektuaren baitan lanean, eta proiektua herritarren beharretara egokitua dela ikusteak lasaitu egin ditu.

“Botere handiek zer neurri edo zein erabaki zain egon beharrean guk, geure txikitik energiaren trantsizioan eragin behar dugu”

Nondik nora sortu zen proiektua?

Nagore Alkorta: Udalean denbora daramagu energiaren trantsizioaren inguruko lanketarekin. Orain artean espazio publikoetako autokontsumorako proiektuak egin eta abian jarri ditugu, baina ikusten genuen momentua zela herritarrei ere energiaren trantsiziorako bultzada emateko. Lanketa horretan Kreen taldearengana jo genuen eta pixkanaka joan gara proiektua lantzen, garatzen eta herrira egokitzen. Azkenean, iazko abenduan aurkeztu genien herritarrei, eta egia esan hasiera hasieratik izugarria izan da herritarrek proiektuaren inguruan azaldutako interesa eta babesa

Herritarren beharrei erantzuten dien proiektua da, beraz.

NA: Bai hori da. Detektatuta genuen proiektua lantzen hasi ginenerako klima aldaketa eta energiaren trantsizioaren inguruko kezka gero eta nabarmenagoa zela herritarren artean. Etorkizuneko, edo gaur egungo, mundu mailako erronka handienetakoa da. Botere handiek zer neurri edo zein erabaki zain egon beharrean guk, geure txikitik eragin behar dugu. Detektatutako behar hori erreala zela baieztatu genuen iaz egindako *Azpeitia 2030 Plan estrategikoa*.

Herriko familien %10ak inguruk sortuko du bere etxeko energia Azpeitian Ekindar abian jartzean. Ba al dago Euskal Herrian eredu honetako proiekturik?

Hodei Arzak: Azpeitia izango da horrelako proiektua garatuko duen Euskal Herriko lehen herria. Gaur egun ez dago hain inizatiba esanguratsurik inguruan, hainbeste familiaren sorkuntza eredu kooperatiboan bultzatuko duenik batetik eta familien argindar kontsumoaren %100a sorkutuko duenik. Energia berriztagarria eta Km0koa sortuko da hemen. Eredu izango da.

“Azpeitian herritarrek kontrolaturiko tresna bat izango duzue etorkizuneko behar energetikoei aurre egiteko”

Pauso garrantzitsua al da energiaren trantsizioan Ekindar?

HA: Izugarritzko pausua da. Ekindar kooperatiba tresna bat da. Lehen proiektu mardul eta bideragarri bat jarriko du abian epe motzean baina etorkizunean herritarrek dauzkaten behar energetiko ezberdinei erantzuna eman diezaiokena. Gaur egungo energiaren menpekotasunaren aurrean alternatibak eskaintzea, gaiaren inguruko lanketen bidez informazioa zabaldu eta sentzibilizazioa lantzea ere izango da bere egitekoa.

Zerbatik kooperatiba herritar bat?

NA: Buelta asko eman izan ditugu ereduaren inguruan, eta azkenean kooperatiba herritarra dela proiektuaren filosofiarekin egokien bat egiten duena uste dugu. Eredu publiko komunitario bat izatea garbi izan dugu hasieratik eta herritarren parte hartzea ere ezinbestekoa da proiektu honetan...

Abian jarritako proiektuan eguzki plaka bidez sortuko da energia. Nola funtzionatzen du, zehazki teknika horrek?

HA: Sorkuntza banatuan oinarritua dagoen proiektu bat da, 1,25 MWp-ko instalazio fotovoltaiko bat, 545 Wp-ko 2.304 moduluz osatua. Modulu fotovoltaikoak eguzkiak emitituriko fotoiak efektu fotoelektrikoaren bitartez energia elektrikoan bihurtzen dute. Panelak lurrean zuzenean finkaturik dagoen estruktura metaliko batean egongo dira. Hortik

aurrera energia hori distribuzio elektrikoarekin sinkronizatzen da eta neurgailu baten bitartez kooperatibak jakin dezake zein den orduz ordu sortzen duen energia.

Ingurumenari bestelako kalterik eragiten al dio?

HA: Sorkuntza banatuan oinarrituriko proiektuek ez dute ingurumen inpakturik izaten. Tokian tokiko analisiak egin behar dira. Ekindarren kasuan ebaluazio ambiental estrategiko bat egin zen detailean aztertzeko eta bideragarria zela proiektua ondorioztatatu zen. Hala ere, proiektuak konpentsazio neurri ezberdinak jasotzen ditu bere gain. Erletegia, landare autoktoen hazitegia eta erriberaren begetazioa, beste neurri batzuen artean.

Ingurumenaren arloak neurriak hartzea urgentziazkoa da, ezta?

NA: Bai, noski. Eta zenbat eta azkarrago hobe. Munduko baliabide naturalak egunez egun xahutzen ari gara, eta horri irtenbidea bilatu behar diogu lehenbailehen. Ezin dugu itxaron beste batzuk zer erabaki edo zein neurri hartuko dituzten. Bakoitzak beretik klima aldaketari eta energiaren trantsizioari aurre egiteko neurriak hartzen hasi behar dugu. Berandu goaz, baina beranduegi izan aurretik egoera iraultzeko pausoak ematea ezinbestekoa da. Eta hor guztiok egin dezakegu zerbait.

Zein da proiektu honek duen balio erantsia?

HA: Azpeitiko herritarrek beren energia elektrikoa sortzeko aukera izango dutela, eta proiektuaren jabetza beraiena izango dela Ekindarrek martxa hartzen duenean. Azpeitian herritarrek kontrolaturiko herraminta bat izango duzue etorkizuneko behar energetikoei aurre egiteko. Berandu goaz energiaren menpekotasunaren lanketan, baina hau lehen pauso esanguratsu bat izango da.

Bestalde, tamaina ertaienko proiektua izanik, kooperatibak bere bizitza guztian funtzionatu ahal iza-

teko behar diren gastu guztiak modu zehatz batean aztertuta daude, herritarrek ordainduko duten kostu prezioaren (<50 €/MWh) barruan sartzen dira kooperatibaren administrazioa, proiektuaren operazio eta mantenua, edozein matxuraren konponketa edo materialen aldaketa ere. Proiektuak duen tamaiak berme handiak ditu, kooperatibaren bideragarritasunaren mesedeetan.

Gustura zaudete proiektua izaten ari den erantzunarekin?

NA: Bai oso gustura. Izugarria izan da herritarrek erakutsi duten konpromisoa eta duten interesa menpekotasun energetikoari alternatiba bat bilatzeko.

HA: Eskertu beharra dago Udalak egin duen lana eta proiektu honetan hasieratik sinestu izana. Aitortu beharra dugu genituen espektatiba guztiak gainditu direla Azpeitian.

Eta aurrera begira, zer?

NA: Proiektuak lantzen jarraitu beharra daukagu. Lehenik hau martxan jartzea da garrantzitsuenak. Baina aurrera begira udaletik, Ekindarrekin zein beste eragileekin elkarlanean klima aldaketari aurre egin eta energiaren trantsizioan eragiteko proiektuetan zein sentsibilizazioan jarraituko dugu.

“Izugarria izan da herritarrek erakutsi duten konpromisoa eta duten interesa menpekotasun energetikoari alternatiba bat bilatzeko”

Erabilera bikoitzeko gunea; erletegia eta hazitegia ere izango da

Eguzki plaken instalazioaz gain, erletegia eta bertako landare espezien hazitegi bat ere jarriko dira, jarduera guztiak osagarri eginez, eta guneari erabilera anitza emanez.

Ekintza proiektua indartu eta naturari zein ingurumenari egiten zaion kaltea gutxitu asmoz, eguzki plaken osagarri den jarduerak abian jartzea izan dute helburu, hasieratik, sustatzaileek. Kaminazpi eremua, Urrestillan, landa eremua da eta izaera horri heutsita eguzki plakak eta eremuarekin bat egiten duten erabilerak ematea lortu nahi da. Bide batez, Gizarte erresilienteagoa egiteko azpiegitura berdeak sustatuz pauso bat eman eta bioaniztasunaren gordailu diren eremuak zaindu eta mantenduko dira, horiek baitira herritarren osasun iturri.

Idea horiei jarraiki, laborantza lurretan: alde batetik, erletegia jarriko da; eta, bestetik, bertako zuhaixken hazitegi edo mintegia. Energia eta ekosistema, bi arlo estrategiko landuko dira bertan horrela.


BERTAKO ZUHAITZEN HAZITEGIA

Proiektu honetan eskura geratzen diren hainbat lur eremu baso natural degradatuak errekuperatzen laguntzeko zuhaixka ezberdinen hazkunde gunea gisara erabiliko da. Zuhaixkak izango lirakeke, nagusiki itzalpean garatzeko gaitasuna dutelako eta eguzki plakekin kompetentzia gutxien edukiko luketenak direlako.

Bertako landarea sustatzen duten mintegiak landarea sustrai bistan ugaltzen dute zainketa errazagoa dutelako baina aldi berean landaketa-aldi mugatua dute, abendutik martxora. Kasu honetan landareen produkzioa lorontzietan egingo litzateke izan ere modu honetara zuhaixken landaketa garaia ia urte osora zabalduko eta, ondorioz, komertzializazio aukerak areagotu egiten dira.

ERLEEN GARRANTZIA

Albert Einsteinek idatzita utzi zuen: "Erleak planetatik desagertzen badira, gizakiari lau urteko bizi besterik ez zaio geratuko: erlerik gabe



ez dago polinizaziorik, ez belarrik, ez animalirik, ezta gizakirik ere". Jakina da erleek ezinbesteko funtzioa betetzen dutela ekosisteman. Beste intsektu batzuekin batera, landare espezie gehienek polinizazioa beraiek egiten baitute. Gaur egun ordea, erleen existentzia arrisku handian dago. Horregatik, erleen garrantziaren jakitun, erletegia jartzeko hautue egin nahi du Ekindarrek.

Landareek hazi edo fruta izateko, polinizazioaren beharra daukate. Alegia, beharrezkoa da lurrean bizia mantentzeko polena landareen artean partekatzea. Loredun landare gehienek polinizazioa intsektuen bidez egiten dute, eta lan horren %90a inguru erleek egiten dute. Eta gaur egun erleek ezin dute naturan modu librean bizirik iraun laguntzarik gabe, Europa kanpotik globalizazioak ekarri dituen parasito eta Asiako liztorraren ondorioz, besteak beste.

Erleek loreen hautsa (polena) eta nektarra (eztia) gordetzen dituzte, negu garaian edo naturan ez dagoenean jateko. Erlezainek soberan dagoena

Eguzki plaken jardueraren osagarri diren jarduerak ere garatuko dira; erletegia eta hazitegia jarriko dira bertan.

ateratzen dute erlauntzetatik. Hala ere, ezta edo polena lortzea prozesu luze baten emaitza da. Urte osoan lana dago atzetik, urte osoan zaindu behar dira familiak. Nahikoa da momenturen batean jateko egokirik gabe geratzea, hotza edo berotik ez babestea, erlauntzan abaraskak ez egokitzea, parasitoak ez kontrolatzea edo Asiako liztorretik ez babestea familiak galtzeko.

Erle familiak etxe antolatuak dira, natura, lana eta onura kolektiboan oinarritzen direnak eta horixe izango da lan filosofia ere.



Energiaren arloan ahalduntzeko proiektua

Azpeitiko familien %10etik gorak,
herrian bertan beraiek sortutako
energia kontsumitzeko aukera
eskaintzen du Ekindarrek.





Bazkide bakoitzak bere energia beharrei erantzuteko adina energia erosteko aukera du.

Klima aldaketari aurre egiteko energia kontsumoa murriztea eta energiaren trantsizioan eragitea ezinbestekoak dira. Horren jakitun, Azpeitiko Udala azken urteetan azpiegitura publikoen inguruko zein herri mailako hainbat proiektu lantzen ari da. Lanketa horren baitan, duela bi urte hasi zen Azpeitian bertan energia sortzeko aukera aztertzen mondragon taldeko Krea ingenieritzarekin batera.

2030. urtera begira osatutako Azpeitia denon artean etorkizuna plan estrategikoaren baitan ere, herritarrek arlo horretan pausoak eman beharra azalatu zuten eta ingurumena eta klima aldaketari aurre egiteko erronkak zehaztu ziren; besteak beste, klima aldaketa arintzeari modu integralean erantzun beharra, mugikortasun iraunkorra eta ekonomia zirkularra bultzatzea eta sentsibilizazio lantzeko erronkak zehaztu ziren.

“Herritarrek ingurumenaren zaintza zein klima aldaketarekin ditugun erronkei aurre egiteari buruzko kezka azaldu zituzten. Herritarren kezka horiek geure egin eta aurretik abiatuta genituen proiektuetan txertatu ditugu”, adierazi du Nagore Alkorta alkateak. Ekindarren lanketa ere klima aldaketari eta trantsizio energetikoari aurre egiteko erronkari erantzuteko sortu da: “Ekindarren proiektuak atzetik hilabete

Proiektua

luzeetako lanketa du; gainera, pandemiak eta gaur egun bizi dugun ezegonkortasun egoera honek abiatutako lanketa hori egin beharrekoa zela erakutsi digu”, zehaztu du.

Gure egunerokoa birpentsatu eta jasangarriagoa izateko pausoak eman behar direla ere azpimarratu nahi izan du alkateak: “Mundu mailako pandemia batetik erabat atera ez garenean gerra batean sartu gaituzte. Gasa, argindarra, gasolina... oinarritzko baliabideen prezioak etenik gabe gorako doaz. Krisi bat bestearen gainean datorkigu eta nekeza da horrela aurrera egitea. Gero eta argiago ikusten da etengabeko krisi batean gaudela eta eredu hau ez dela sostengagarria. Mundua antolatzeke modu honek ez du gehiagorako ematen. Eta egoera honetan bi aukera ditugu; etorriko denaren esperoan gelditu edota ekitea. Guk, eta Azpeitiak, bigarrenaren aldeko apostua egin nahi dugu. Ezinbestean, alternatibak bilatu behar ditugu. Denon artean, gauzak beste modu batean egiten asmatu beharra dugu hemendik indartuta atera nahi badugu”. Eta helburu horrekin dator Ekindar, azpeitiarren energia kooperatiba.

ZER DA EKINDAR

Ekindar azpeitiarren energia kooperatiba da. Modu partehartzaile batean, denon artean energiaren arloan eragiteko tresna izatea du helburu. Hori, gainera, erdu publiko komunitario eta kooperatiboan egingo du. Energiaren inguruan herritarren ahalduntzea sustatuz herritarrek gaiarekiko duten sentsibilizazioa landu, energiaren demokratizazioa bultzatu eta trantsizio energetikoan urratsak ematea du helburu.

Bere burua aurkeztearekin bat, gainera, eguzki plaken bidez azpeitiarrek beren energia sortzea ahalbideratuko duen proiektua aurkeztu du. Energiaren arlo konplexuan eragile izatea du helburu eta herritarren ahalduntze eta sentsibilizazio lanak egiteaz gain, Azpeitia jasangarriago izateko proiektuak landu eta garatzea du helburu.

EGUZKI PLAKEN PROIEKTUA

- Ekindar azpeitiarren energia kooperatiba, irabazki asmorik gabekoa izango da. Bazkideen %70a herritarrena izango da eta %30 bestelako bazkide kolaboratzaileena.
- Hiru helburu nagusi izango ditu kooperatibak: gaiaren inguruko sentsibilizazioan eragitea; enregiaren prezioaren demokratizazioa bultzatzea eta trantsizio energetikorako pausoak ematea,
- Ekindarren lehen proiektua hektarea bateko plaka fotovoltaikoen parke bat egingo da. 2.200 panel inguru ezarriko dira bertan.
- Sortutako energia sare orokorrera salduko da, eta bazkideek saretik jasoko dute energia bere etxean.
- Bazkideek 25 urterako energia izango dute aseguratuta.
- Urrestillan, Kaminazpi deituriko eremuan kokatuko da parkea.
- Herriko 600 familia edo establezimenduren energia beharrak asetzea aurreikusten da.
- Lau lagun bizi diren etxe bateko energia beharrei aurre egiteko 5 panel behar izaten dira gutxi gorabehera.
- Bazkide izan nahi dutenei, gaur egungo fakturarekin kalkulua egiten zaie bazkide izateko zenbatekoa eta fakturan izango duten aldea zehazteko.
- Bakoitzak bere energia beharrei erantzuteko adina energia erosteko aukera izango du. Hau da, inbertsio energetikoa izango da eta ez etenik ekonomikoa ateratzeko.
- Lur eremu horretan instalazioa egiteko ingurumen baimen guztiak eskuratu ditul
- Helburua irailean lanak hasi eta urte amaierarako energia sortzen hastea da.
- Plakak jartzeaz gain, eremuari bigarren eta hirugarren nekazal erabilera ematea nahi da. Hala, erletegia eta landare-hazitegia ere ezarriko dira bertan.

Ekindar irabazi asmorik gabeko azpeitiarren energia kooperatiba izango da.

PROIEKTUAREN DATUAK

Plaka fotovoltaikoen planta egiteko hasierako inbertsiao 1.329.951€koa izango da eta operazio kostuak 527.520€koa izango da. Beraz, guztira, 1.857.471€ko aurrekontua du proiektuak.

Plantak 1,256MWh potentzia instalatua izango du eta lehen usteen 1.346MWh sortuko ditu; guztira, 25 urtean, 37.156 MWh sortzea aurreikusten da. 462 kontsumitzaile inguru izatea aurreikusten bazen ere, herritarren batezbesteko energia kontsumoak uste baino txikiagoak direnez 600 bazkide ingurura iristeko aukera izango da. Plantaren errendimendua %79,87koa izango da. Energiaren kostua 49,99€/MWh izango da.



Hasierako inbertsioa
1.329.951€



Operazio kostuak
527.520€



Energia sorkuntza
37.156 MWh



Energia kostua
49,99€/MWh

Energia kostua:

Hasierako inbertsioa + 30 urtetako operazioa kostua

 30 urtetako energia sorkuntza

ZER EGIN BAZKIDE IZATEKO

Bazkide egin nahi dutenek beren hasierako ekarpena zenbatekoa den eta gaur egungo fakturen eta Ekindarreko bazkide izanez gero edukiko duten jakiteko kalkulo pertsonalizatuak eskatzeko aukera irekita da gaurtik. Kalkulua edonork eska dezakeen arren, gaurtik astelehenera bitartean aurreinskripzioa egina dutenek lehentasuna izango dute kalkulua eskuratzeko.

Kalkulu pertsonalizatu www.ekindar.eus helbidearen bidez ere eska daiteke.

Bazkidetza kanpainaren baitan, Goikokale 2 zenbakian (udaletxearen ondoan) Ekindarreko bulegoa ere irekita dago. Bertan bazkide izateko inguruko tramiteak egiteaz gain, galdera eta zalantzak argitzeko aukera ere eskaintzen da.

Bazkidetza kanpaina aurrez bazkide kopurua betetzen ez bada, maiatzaren bukaeran amaituko da. Hala ekaina-uztaila bitartean zuzendaritza batzordea eratzeko batzarra egitea aurreikusten dute eta irailean plakak ezartzen hasiko lirateke. Abenduan energia sortzen hasiko da modu horretara Ekindar.

Bazkide izan nahi dutenei, gaur egungo fakturarekin kalkulua egiten zaie bazkide izateko zenbatekoa eta fakturan izango duten aldea zehazteko.

Oraindik izan zaitezke Ekindarreko bazkide

Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta astelehen eta asteazkenetan 16:00etatik 18:30era, bi astez, izango da bulegoa irekita.

Ekindarren bazkidetza kanpainaren baitan, herritarrei zuzeneko informazioa eta arreta emateko helburuz, bulegoa ireki zen martxoan, Goikokale 2an. Aste Santuak bitartean egon zen irekita eta tarte horretan herriko 600 familiak eskatu zuten beren energia kontsumoaren inguruko kalkulu pertsonalizatua egiteko. Orain, bazkidetzari azken bultzada eman asmoz berriro irekiko da bulegoa, maiatza bukaera arte.

Astelehenetik ostiralera, goizero 10:00etatik 13:00etara eta astelehen eta asteazken arratsaldean, 16:00etik 18:30a arte. Bertan proiektuaren inguruko informazio orokorra, norbere kalkulu pertsonalizatuaren inguruko informazioa eta tramitazioaren inguruko azalpen eta xehetasunak emango dira.

BAZKIDETZA ZABALIK

Oraindik bazkide egin nahi dutenek badute horretarako aukera. Bulegoa irekita oraindik libre geratzen diren bazkidetzak egitea da helburua. Baina baita, prozesua hasi baina bukatu gabe dutenen tramitazioak ixtea ere. Hau da kontratuak sinatzea.

Bazkoide egin nahi dutenek ekindar.eus webgunearen bidez edo bulegora bertaratuta eskatu dezakete beren kalkulu pertsonalizatua. Behin kalkulua eskuan erabaki ahal izango dute bazkide egin edo ez. Bazkide egiteko kupoa betetzean, izen ematea itxi egingo da.

Herritarrek aurrez aurre bazkidetzako tramiteak egiteko, informazioa eskuratzeko eta zalantzak argitzeko aukera izango dute bertan.

EKINDARREN BULEGOA

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera

10:00etatik 13:00etara

Astelehen eta asteazkenetan

16:00etatik 18:30ak bitartean

Helbidea:

Goiko kale 2 (udaletxe ondoan)



Bazkideak diruz lagunduko ditu Azpeitiko Udalak

Ekindarren bazkide egiten diren herritarrek diruz lagunduko ditu. Ekainaren 30a bitartean aurrez dezakete beren eskaera udalean.

Azpeitiko Udalak klima aldaketarekin eta trantsizio energetikoarekin duen konpromisoaren baitan da Ekindar azpeitiarren energia kooperatibaren sustatzaile. Konpromiso horren baitan, eta egunez egun Azpeitia jasangarriagoa izateko helburuarekin.

LAGUNTZAREN XEHETASUNAK

Dirulaguntzen bidez, proiektua bultzatu eta herritar gehiagorentzat iristea lortu nahi da. 2022ko aurrekontuetan Ekindarren bazkideak diru laguntzeko 250.000€ko dirulaguntza poltsa jarria du udalak eta horretaz gain kooperatibarekin lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea ere aurreikusten du.

Diru laguntza Ekindarren bazkide egiten diren herritar guztiek eska dezakete. Laguntza orokorra 500€koa izango da. Beti ere, bazkideentzako eginiko ekarpenaren %50a izanik gehienezko laguntza. Horretaz gain, egoera ekonomiko okerreanean dauden herritarrek 1.000 euro arteko laguntza jasotzeko aukera izango dute, betiere, Ekindarrera egindako ekarpenaren %75a izanik topea. Dirulaguntza norbanakoek zein autonomo, merkatari txiki edo bestelako izaera duten elkarteek ere jaso ahal izango dute.

Dirulaguntzen informazioa Herritarren Arreta Zerbitzuan eta Ekindarreko bulegoan eskainiko da. Eskaerak udaletxean aurkeztu behar dira, ekainaren 30a bitartean..



Bertan Merkatari elkartea

erkatariok ere bat egin duzue ekimen honekin. Zer ekarpen egiten diozue proiektuari?

“ Merkatari izateaz gain, herritar ere bagara, eta arduratzen gaitu gure herriaren izaerak eta etorkizunak. Proiektu honetan denak, kolektibo gisa, bidea egingo dugu herria hobetzeko ”

Usurbilgo Lanbide Eskola

Proiektuaren zer alderdik erakarri zaituzte berari atxikitzeko eta sustatzea erabakitzeko?

“ Gaur egungo kontsumo-ohiturak erabat kaltegarriak dira ingurumenarentzat; ordezeko bideak aurkitu behar ditugu. Proiektu honi esker, energia-kontsumoa gutxitzeaz gain, energia berdea bultzatzen du, eta hori gure pentsaerarekin guztiz bat dator ”



Kulturaz kooperatiba

Proiektu honek energia burujabetza du oinarri. Garrantzitsua al da hori zuentzat?


“ Herri gisa garatzeko, ezinbestekoa da alderdi guztietan burujabe izatea; dela kultur mailan, sorkuntzan edo arlo ekonomikoan. Ekimen honek herri gisa behar dugun energiaren sorkuntza eta haren kontsumoaren jabe bihurtzen gaitu ”



Urola BHI Ikastola

Zerk lotzen du ikastola ekimen honekin?

“ Hezkuntzaz-erakundea garen aldetik, gure erantzukizuna da etorkizuneko gizartea antolatuko duten herritarrek kontzientziatzea eta heztea. Gure zeregina, kasu honetan, herritarren sentsibilizazioan eragitea da ”





Karmelo Etxegarai ikastola

Zuen erakundeak ekimen honen aldeko apustua egin du. Zer onura dakar horrek zuentzat?

“Gure erantzukizuna da gizarte hobea lortzea, pertsonak eta herriak burujabe izatea eta lotzen gaituzten mendekotasunetatik askatzea. Bide honetatik urrats berri bat ematera goaz”

Iraurgi ikastetxea

Zergatik erabaki duzue proiektu honi atxikitzea?

“Ekimenaren beraren filosofia eta helburuekin guttiz bat gatoz, argi dugu hori dela bidea”



Ikasberri Azpeitiko ikastola

Hainbat arlotako erakundeek erabaki duzue proiektu honetan sustatzaile jardutea, eredugarria dela uste duzue?

“Herri bat egiteko, talde gisa antolatzeko eta gure bideak guk geuk zehazteko denak gara beharrezkoak. Halaxe pentsatu izan dugu, eta ez dugu proiektu honetatik kanpo geratu izan nahi. Denon ardura da”

Artxara kooperatiba

Zer onura uste duzue egiten diola proiektu honek ingurumenari eta klima aldaketaren arazoari?

“Guretzat funtsezkoa da ingurumena zaintzea eta klima aldaketari aurre egiteko bitartekoak jartzea, proiektu honek bi alderdiak betetzen ditu, eta gure ustez, ezinbestekoa da halako ekimenekin bat egitea”



Azpeitiko Udala

Gizarte- eta kontsumo-eredu honetan urrats txikiek garrantzi handia dute. Udalak eredu berri bat zehazten duela uste duzue?

“Energiarekin eta energia-kontsumoarekin erlazionatzeko beste modu bat da hau; gure irizpideekin eta lortu nahi dugun herri ereduarekin bat datorrena. Ekindar energia sortzeko eta kontsumitzeko modu berri eta onuragarri bat izango da”



ekindar

Azpeitia argia eta garbia

Egin Ekindarreko bazkide!

Azken 100 bazkideak
egiteko bulegoa zabalik

Ordutegia:

Astelehenerik ostiralera
10:00etatik 13:00etara.

Astelehen eta asteazkenetan
16:00etatik 18:30ak bitartean



**GURE ETXEETAN,
GEUK SORTUTAKO
ENERGIA**
